



OSASUN OROKORRAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Hernanik
kronika.net TOKIKOM

Osteguna, 2012/02/02

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data
2012
otsaila
1

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



ITXASBURU SAGARDOTEGIA. JOSE LUIS MEDRANO IRIZAR:

«Labela da apustu bat, bertako baserritarra eta sagarraren alde»

Itxasburu sagardotegiko Jose Luis Medranok dioenez, bertako sagardoak izena eta abizena behar zituen. Horregatik, aurten, Eusko Label ziurtagiria duen sagardoa egin dute Itxasburun, lehen aldiz, eta apirila-maiatzean botilan probatzeko moduan izango dute.

2012/01/21 - Larunbata

«historian zehar ura baino gehiago edan izan da hemen sagardoa. garai hartara ez gara bueltatuko, baina merezi duen lekua eman beharko genioke hemengo sagardoari». Jose Luis Medranok dioenez, apustu garrantzitsua egin du itxasburuk eusko label ziurtagiria duen sagardoa egiteko. 75.000 litro sagardo egin ditu aurten itxasburuk, eta horietatik 20.000 litro eusko label ziurtagiriarekin aterako ditu merkatura, apirila-maiatza aldera. txotx denboraldian ere, eusko labelera bideratutako kupeletako sagardoa probatzeko aukera izango dute itxasburura inguratzen direnek.

bertako sagarra, eta bertako baserritarrak

%100 bertako sagarrarekin egindako sagardoa da eusko labela, eta kalitatea fundazioak ziurtatzen du hori. medranok dio, beti erabili izan dela bertako sagar asko, sagardoa egiteko, baina izen eta abizen bat behar zituela horrek. «izena eta abizena behar zituen hemengo sagardoak, eta hori lortu dugu ziurtagiri honekin. itxasburun, berez, sagardo guztia bertako sagarrarekin egin dugu, eta beraz, dena labelean sartu genezakeen. hala ere, prozesu honek kostu bat duelako, labeleko botilaren prezioa igo egiten da, eta horregatik, oraingoz kupeltegi osoa ez dugu label gisara botilan sartuko. oraindik garaiz da jakiteko nola erantzungo duen erosleak. horregatik, zati bat label ziurtagiriarekin aterako dugu, eta beste bat, gure betiko etiketarekin». medranoren ustez, bertako baserritarrentzat ona da eusko label ziurtagiri bat izatea. «aukera baldin badaukagu dirua bertako baserritarrei emateko, zergatik joan behar dugu kanpora sagar bila? bertako diruak bertan geratu behar duela uste dut nik. komeni zaigu guri, eta gainerakoei ere bai».

«sagastia, inbertsio polita»

itxasburuk garbi dauka, apustua non egingo duen. «nik edozein baserritar

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



DIKUSI



AÑARBE -
UHOLDEETAKO
TXOSTENA

BEHOBIA-DONOSTIA
Hernaniarren
saikapena

BEHOBIA-DONOSTIA

animatuko nuke, terreno bat hartu, eta sagastia jartzera. inbertsio polita iruditzen zait, eta epe motzean diru-etekinak emango dituena. gu ilusio horrekin ari gara. 3 hektarea sagar baditugu, eta haunditzeko asmoak ere bai».

kontrol zorrotza, hasieratik bukaerara

esfortzua ere berekin dakar, horrelako apustu bat egiteak. kalitatea fundazioak inspektoreak bidaltzen ditu sagastara eta sagardotegira eta prozesu guztia kontrolatzen dute: sagarra, bilketa, jotzeko momentua, kupeleratzea, enboteilatze momentua... «sagastia zaindu egin behar da, kimatzetik hasi eta ongarrizteraino. sagarra kontrolatu, mostoa analizatu, kupela prezintatu... eta botilan sartu aurretik laborategian analizatu, eta dastatu egiten dute 5 teknikok, eusko label etiketarekin merkatura atera litekeen esateko».

txotxerako prest

itxasburuk ireki ditu ateak, eta nahi duenak probatu dezake sagardoa, bai eusko labelera bideratutakoa eta beste kupeletakoa. «sagardo ona egiten segi behar du-gu, eta markak alde batera utzita, sagardogile guztioi dagokigu sagardoa leku onean uztea».



Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

Sailkapen orokorra



BESTE HEDABIDEAK TOKIKOM

ANBOTO:

Elorriokoren erreakzioa etxetik kanpora

GOIENA:

Iñaki Perurena: "Azken urteotako apustua harria jasoaz zahartzea dut"

AIURRI:

Elurteetarako jarduera protokoloa indarrean jarri du Urrietako Udalak

DOBERA BLOGAK

ZUBIETA-SOS:

Azpeitia Zero Zabor:
Azpeitiko egungo zabor bilketa sistemak aldaketa sakona behar du

ZUBIETA-SOS:

Auzitegi Gorenak ere errauskailua kolokan jarri duela dio Usurbilgo Udalak (+ Urtarrileko albisteak)
